

## Gaztekuaren aurredeinuak aurkeztu jakie Igorreko gazteei

13. orrialdea

## Arrasate-Udalatx eta Kilimon Trail lasterketak irabazi ditu Iturbek

Arrasate-Udalatx lasterketan, errekorra be ezarri eban, Oihana Azkorbebeitiak eukana hobetuz. Azkorbebeitiak bigarren egin eban Arrasaten. Mendaroko Kilimon Trail lasterketan be jantzi eban txapela Onditz Iturbek astebete lehenago. **11. orrialdea**



## Amaia Aldai Andrazkoen IV. Bizkaia Torneoko finalera

10. orrialdea

# "Mauriziaren irrintzi baten indarraz"

Mauriziaren eskualdean, irrintzi baten indarra euki eban Korrikak.

**K**ar mele Jaio idazleak idatzitako mezua egoan lekuko barruan. Milaka euskalzeren eskuetatik pasau da, Korrikaren 11 egunetan, Euskal Herri osoan zehar. Jaiok mezuan, Korrika irrintzi bat dala dino eta berbakaz bakarrik ez, berba eta gorputzakaz egiten dala hizkuntza bat. Holan izan zan Arratian. Gorputz gazteek eta zaharrek, sasoiak dagozanek eta gaixotasunak jotakoek hartu eban lekuko duintasun eta indarrez, "Mauriziaren irrintzi baten indarraz".

Korrikaren mezuan "euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, arnas aparatu eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrera. Malko eta listuz bustitzea behar du euskarak. Hatz markaz zikintzea. Zikindu dezagun, beraz, euskara; lohitu dezagun bizitzaz" dino Jaiok. Euskerea gara eta bizitzaz zikindutako euskerea behar dogu idazlearen esanetan.

AEK-ko Klara Astondoak kontau deusku Arratian bizi izan ziran momenturik zirrargarrienak eta Korrikaren edizino honetako argazki batzuk be badarkaguz hona. [begitu.eus](http://begitu.eus) edizino digitaletan ikusi daitezkez beste asko. **8. eta 9. orrialdeak**



### ARRATIA

## Euskerearen aldeko konpromisoa sinatu dabe 24 enpresek

Hori lortzeako datozen urte bietan Errota Fundazioaren eusGara zerbitzuak eskaintzen deutesiezan tresnak erabiliko ditue. Sinatze ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Miren Dobaran, Foru Aldundiko Lorea Bilbao eta Arratiako alkateak egon ziran, besteak beste. **5. orrialdea**

### ARTEA

## Kalte handiak eragin deutso suak Ustrukue jatetxeari

Su hartu eban Ustrukue jatetxeak apirilaren 2an, bertan 30 persona ingurua bazkalduten egozanean. Ez zan zauriturik egon baina kalteak handiak dira. Teilatua konponduteko lanak eta Ekomuseoko barrikuntza lanak batera egiten ahaleginduko dirala dino alkateak. **5. orrialdea**

### ARRATIA

## Regueifa hezkuntza tresna bat dala dino Manolo Masedak

Aurten Arratian izan dira, Galizia, Katalunia eta Arratiako ikasle inprobisatzaileen topaketak; hau da Regueiglobertso ekimeneko alkartrukea. Manolo Maseda irakaslea Galiziako institutu biko 41 ikaslegaz etorri zan Arratiara eta euren inprobisetako modu tradizionalaren historia, bilakareta eta egoera azaldu deutesaz BEGITURI. "Oinarri tradizioaletik abiatuta, pedagogiarakoa erabili daitekela egiten dogu amets, herri idiosinkrasia eta, aldi berean, gazteriaren ahalduntzea batzean dauzan tresna moduan" dino Masedak. **6. orrialdea**

**Soinu argia, garbia, naturala**

15 egun erabilan **PROBATU DOAN**

Orain **%25** beherapena\*

Mugikorrera konektatutako Audifonoak

**OLAETXE AUDIO ZENTROA**  
Sabino Arana 3. Igorre  
T. 946 577 003

CENTRO AUDITIVO OFICIAL **WIDEX**  
AUDIFONOS DE ALTA DEFINICIÓN

\*MAGNIFY 100 audifonoetan mailazaren 3. arte





## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:

[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA

### Pavel askatu ostia!

Ezaguna izango dozue jada Pablo Gonzalez nabarniztar kazetaria sufriduten dagoana. Lerro honeek idazterakoan 42 egun beteten ditu Poloniako Rzeszów uriko kartzelako ziega baten. 42 egun isolatuta, bere familiagaz kontakatu ezinik, konfiantzazko abogadu barik, fiskalak inposatutako ofiziozko abogadu baten eskuetan. Maiatzaren 29ra arte, epailearen aurretik pasau arte, askatasunik barik. Espainiako konsulak bakarrik ikusi ahal izan ei dau labur. Honezker 10 bat kilo galdu dituala dino eta lasai dagoala. Bere ingurukoak oso kezkatuta gagoz.

Errusiar espioia izatea leporatzen deustie, GRU edo inteligentzia militarreko kidea izatea hain zuzen. Bere aurka aitaturako frogak barregarriak litzatekez egoera hain larria izango ez balitz. Pasaporte bi izatea (nazionalidade bikotxa dauka errusiarra eta espainola), Laboral Kutxako tarjeta bat eroatea eta GARAKo kolaboratzailea izatea (atzen erakunde bi honeek "errusiar tresnak" ei diralakoan!).

Pablo, Pavel bere ingurukoentzat, Errusian jaio zan Sobiet Bata-suna azken aztarnatan egoalarik. Bere aitita Gerra Zibilean SESBera eroan ebezan ume hareetako bat izan zan. Han bere ama jaio, bizi eta ezkondu egin zan. Urte batzutura dibortziau ostean Bartzelonan finkatu zan beragaz eta han garatu ebazan ikasketak.

Euskal Herriaz maitemindu eta hiru semedun aita harroa dogu. Elantxobe eta Nabarniz bitartean garatzen dau bere bizitza, nahiz eta hainbeste urtetan kazetari lez hainbat hedabideguz lanean ibilteagaitik, sarritan Sobietar ohiko inguruko gatazken jarraipenean, asko bidaiatu behar izan eta sasoi luzeak urrun bota behar.

Politologoa be bada, EHUKo GeopolitikaZ ikerketa taldeko kidea dogu Pavel. Eta horren haritik bitxikeria bat. Oin dala 5 bat urte



### GABIREL EZKURDIA ARTEAGA

GeopolitikaZ ikerketa taldeko politologoa eta ikertzailea

Gernikako bonbaketa inguruan antolatu genduzan jardunaldi batzuetan Suntsipen Handiko Gezurren inguruko hausnarketea egin genduan. Badakizue Gernika "gorriek eta separatistek erre eben" eta orduan be Sirian "eraso kimikoak" zirala eta, *fake news* gaia pil-pilean egoan. Egunokaz Zelenskik, nazi ukrainiarren zurtzailea, lotsa barik Gernikako sinboloa erabili dauanean, Buchako sarraskia salatu guran, burura etorri jat zein aldrebesa dan batzuetan bizitza.

Nork esango eban orduan egun Pavel *fake* leporaketa batzuei esker egoera hau sufridu beharko ebanik!

Lotsagarria da Europar Bata-sunaren barruan dagoan neurri bikotxa. Atzo EBk salatzen eban "demokraziaren ereduetatik" kanporatzen egoan estatu poloniarra, gaur ezinbesteko lubakia bihurtu dabe Errusia gelditu arazoteko. Atzo "Errusiaren eredu autoritarioaren" bidetik joian Polonia salagarria, egun munduko hainbat lekutan tinko salatzen dabezan praktika antidemokratikoak

eta Giza Eskubideen kontrakoak Poloniak berak gauzatzerakoan, xiton!: "harro gagoz gure anai poloniarretaz".

Pavel Caracasen, Moskun edo Damaskon atxilotua izatekotan eta Giza Eskubideen aurkako baldintza nabari honeek pairatzekotan, Jauraritazatik hasita Espainiako gobernura, Europako Kontseilutik igarota, ikaragarriko salaketa tinkoa izango zanaren dudarik ez daukat. Baina kasu honetan Pavel euskalduna da (euskaldunentzat Espainian ez da sekula justiziarik izan, esanak dinoanez), errusiarra eta kazetari askea, non eta Mendebaldea erasotua izan dan inguru sarraskitsu batean, eta ikusi danez, momentu honetan hiru ezaugarri horreek izatea ez da gomendagarri Europa Europatik ibilteko.

Ukrainako gerrea 2014ko udabarrian hasi zan, Maidaneko Estadu golpearan ostean. Ordutik 2022ko zezeilearen 24ra arte 14.000 hildakoz gatazka isildu batez ari gara, eta Pavelek hau guztiau ondo daki. Maidanen egon eta gero Donbassen ibili zan lanean, gero Kieven, Varsovian, Artsajen eta beste hainbat lekutan. Primeran ezetuten ditu inguruak eta gertakariak. Agian hori da bere "delitua", baina kontuz! bere "defensea" baita be: Hor dira sareetan garden bere idazki, bideo eta lanak.

Ukrainako gerrearen azken fase honetan kazetari gehienak, modu masiboan, Mendebaldeko hedabideek inposatuten daben "bersino ofiziala" gaz lerrokatu dira ozen eta irmo. Beste kazetari gitxi batzuek alde nabaria dago. Atzen honeek isilduak, baztertuak, erasotuak eta mehatxatuak izan dira; kritikoak diranak, galdera askeak egiten dabezanak, "freelance" deontologikotik lanean dabizanak. Pavel horreetakoa da: independientea, George Steer langoa. 1937an zigortua eta isildua izan zana, egun goraiatua bada be, Gernika gorriek eta separatistek erre ez ebenaren lekukoa izanik Francoren *fake news* izorratu ebana.

Pavel Askatu! *Free Pavel!*

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak. Kale berbakunea sustatu guran

Ezagun da diziplina barri batez hasten garanean, bultzadatu batek beti laguntzen dauala, aiko hemen ba!!

#### 1. Errazenetik hasi

Aditz errazenetatik hasiko gara:

Aditza	Andrazkoari	Gizonezkoari
Da	Dona	Dok
Dau	Jona	Jok
Gara	Gózana	Gozak
Dekot	Jékonat	Jékoat

#### 2. Esaldi entzunak

Lehenengotarik ezin geinke dana jakin, horregaitik alkarrizketa osoa eroaten jakin ez arren, esaldi solte batzuk sartu geinkez.

Adibidez:

- 1.- Bai, arrazoia dekona!! (dekona=daukazu)
- 2.- Hori dok eta!! (dok=da)
- 3.- Etxekonat dirurik (etxeok=ez daukat)
- 4.- Etxakiñat ezebe (etxakiat=ez dakit)

Ha hor gure gaurko aholkuak. Hurrengorarte!!

# NETFLIX EUSKARAZ

[WWW.PANTAILAREUSKARAZ.EUS](http://WWW.PANTAILAREUSKARAZ.EUS)

EUSKARAZKO  
IKUS-ENTZUNEZKOEN  
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>



## LUMATUTEN

URTZI  
BARRENETXEA

## Freud revisited

**E**zer baino lehenago argi itxi gura dot psikoanalisi ez eze Freuden hainbat ekarpen ez jatazala interesetan; beste berba batzuk ez erabiltearren. Baina bada egile vienarraren lanen artean oin gitxi irakurri dodan bat, *Egonezina kulturalan* (1930), behingoz zeozer esan deustana.

Liburu horretan, besteak beste, egungo gizakiaren hiru gaitz nagusiak aitzaten ditu: gorputzaren zahartze prozesua, ingurune naturalaren baldintza mugatzaileak, eta azkenik, desbardintasun sozialak. Atseginaren bila gabizela sortzean jakun egonezinen errozia ei dira gaitzok, Freuden eretxian, eta horreei aurre egiteko jokabide desbardin bi eukitea aholkatzen deusku.

Lehenengo faktore biak dirala eta, gizakiaren gaitasunetik kanpo dagozan neurrian, eurakaz biziten ikastea komeni ei jaku. Ostera, hirugarrena aldatzea gure esku dago; bestela esanda, badaukagu bizi dogun egoera

soziala iraultzeko eta hobetzeko aukerea.

Kuriosoa da ikustea zelango buelta emon dauan paradigmeak ehun urte eskasean. Gaur egun, emoten dau baldintza sozialak aldaezinak dirala: zelanbait gainean ezarri jakun egoera betirakoa dala. Halan ba, desbardintasun larriak normaldu egin doguz, oinarrian daben izaera politiko aldagarriari jaramon egin barik.

Beste aje biak, ostera, moldatu leikeguzala entzuten dogu gero eta sarriagotan. Batetik, gorputza beti gazte mantenduteko industria gero eta garatuago dago; hor dagoz, esaterako, *antiaging* terapiak edota "hilezkortasuna" topetan dabizanak.

Bestetik, ingurune naturala gura dogun neurria moldatu leikegula dinoan idea be sakon errotu da gurean. Emoten dau jarduera fosilisten gaitzak konponbide erraza daukiela eta planeta "manejetea" hain gatxa be ez dala: ziur egingo dogula probetxuzko zeozer hondakin nuklearrakaz eta asmatuko dogula berotze globalari aurre egiteko kontu teknomagikoren bat.

Esan lei gizarteko arazoak konpondutea baino egingarriago ikusten dogula, gaur egun, gure gorputzen zahartzarua gelditutea edo-eta natura geure asmoetara moldatutea. Errealidadea interpretetako puntu horretan behintzat, ados nago Sigmundegaz.

## ZERTZEAN



## MIREN ZULUAGA

## Gaia jarrita: "Han, hor, hemen"

1

Berto idatziak argitaratu, ez dot hauxe egin askotan, ausartu naz ta holantxe nator kordelik barik ta sokan, betiko gaiak gaurkoz ahaztuta kutsatuak, gerra ta OTAN; gure ahalegina eta sormena geratu ez daitezen lotan, burutazino ta ardure batzuk kontauko dodaz bertsotan.

2

"Haraino joan gure ez badozu, ein zeinke etxetik bertatik", "honenbesteko gastua eginda, ez dao BEZ-a pagetarik", "ta koordinadak ondo sartuta, berak ingo dau pit, pit, pit", zenbat halango mezu egunero bizitza errez eta polit, pena bakarra gure umeak dana sinestea hain gazterik.

3

Mila aukera eskaintzen jakuz lortzeko bizi oparoa, hau, hori ta ha eiteak, antza, zorientasuna daroa, zeresanari begira beti aurrerabide arrarora, ta gura ez dala, zer sortu dogu? beharizanen aroa, ezer falta ez dogulakoan hutsa gero ta hutsagoa.

4

Andreok, barriz, andra garenez, badogu geuk be aukera, ahalduntzea lortu bidean hainbat ilusio bete da; adibide lez gure herrian egin dogun saiakera, pausorik pauso ta astez aste danok helburu berbera, aldea dago etxeokandretik ETZANDERAK izatera.

Doinua: Azken amasa

## BEGI TXINDORRA

**K**orrika zirraraz, pozez, artega, ilusinoz... bizi dogu edizino bako-txean. Emozinoz beteriko egunak izaten dira askorentzat eta lekukoa eskurik esku pasau ahala anekdotaren bat edo beste ixten deusku bidean Korrikak.

Anekdotak horreetako bat Korrikako furgonetetan doazanak itxi deuskue Lemoan, Korrika Arratiatik pasau zan egunean bertan; izan be, Amorrortu ostatuak artatutako lehenengo bezeroak izan dira; hau da, Korrikak inaugurau eban ostatu barriztua. Furgonetakoek 14 orduko txandea egin ostean ostatuan hartu eben atsedean, dagoazan 17 logeletatik 5 bikotx okupauta.

Korrika furgonetan doazenen ordutegiak ez dira ohikoak izaten, sarri egunez lo eta gauean behar egin behar izaten dabe eta. Hori dala eta, Amorrortun deskantsau, indarbarritu eta barriro be beharren ekiteko 23:30ean armozau eben, Ezkerralderako bidea hartu aurretik.

Furgonetakoen berbetan, pribilegioa izan da ostatura inaugurau ahal izatea; eta era berean, ostatukoentzat be pribilegioa izan da Korrika aurrera eroateko beharra egiten daben zoro zoragarri horreek lehen bezeroak izatea.

Miren Madariaga



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Goider 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Oñativia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bilaka  
T. 94 631 50 39  
Kalejota Urbaitze 101  
R.P.S. 21/06



ARTEA

## Alberto Intxaurreaga: "Di-da baten erre zan dana"

Su hartu eban Ustrukue jatetxeak aprilaren 2an, bertan 30 persona inguru bazkalduten egozanean. Ez zan zauriturik egon baina kalteak handiak dira.



### Erredakzioa

Merkadua egon zan zapatu horretan Artean, eta 14:20an, herritar batek Udalarena dan Ustrukue jatetxekeo teilatutik kea urteten zala jakin arazo eutsiengan mahaiak eta jasoten egozan Alberto Intxaurreaga alkatea eta Gorka Beitia zinegotzia. Dana itxi eta bertaratu ziran, "deitu suhiltzaileei, ni barrura noa" esan eutsan alkateak zinegotziari. Hasikera baten eta suhiltzaileak heldu ziran be, ez ebala emoten hainbestekoa izango zanik adierazo deutso BERGURI alkateak.

Hogeta hamar persona inguru egozan bazkalduten; tartean, suhiltzaile bat eta tximiniak garbituten dituan bat, eta, janlekua hustu ostean, suhiltzaileak etorri bitartean, batzuk, alkatea tartean, sua amatetan saiatu ziran bazkaltzen egoan suhiltzailea eta tximinia garbitzailearen gidaritzapean. "Eurek ipini eben kriterioa. Sartu ginan su-itxalgailuakaz, txandaka, ahaleginduten... Suhiltzaileak azalduten euskun zelan egin. Esate baterako, lehioak ez zabalduz esan euskun, tiroa egiten daualako. Mangerea atera genduan ura botateko baina keagaz ezin zan barrutik, kanpotik hasi ginan eta bonberuak etorri ziran orduan. Eurek amatau eben. Dana di-da baten erre zan" azaldu dau Intxaurreaga. Suhiltzaileak 19:00ak aldean lortu eben sua guztiz amatetea. "Eskerrak emon gura deusagu jenteari, emon

eban laguntasunagaitik eta batez be, suhiltzaileari eta tximinia garbitzaileari".

Suaren errazioa argituta dagoa la dino alkateak. "Oin dala hiru urte egin zan barrikuntza bat, estufa zarratuak ipini ziran eta tubo bi konektatu barik egozan". Eraikin publikoa izanda, ondo aseguruak dagoala eta aseguruak kubriduko dauzala konponduteko lanak dino Intxaurreaga.

Jatetxea erreta, alokairuan hartuta eukan Esti Murgia lan barik geratu da. "Egoera latza da. Ezin dot ezer egin ez dakidalako zenbat denpora luzatuko diran obrak. Langileak kaleratu behar izan dodaz eta neu be egoera berean nago" dino.

### Ekomuseoa barriztuteko lanak

Udala hasi da kalteen balorazioa egiten arkitektoen laguntzeagaz. Ondoren, "gure estimazioa aseguruari pasauko deusagu, euren balorazioagaz ea bat egin dauan eta noraino ikusteko. Horregaz hasiko gara teilatua konponduteko lizitazioa martxan ipinten. Ekomuseoko barrikuntza egiteko proiektuaren adjudikazioa aprilaren 8an aprobetakoan zan, baina bertan behera geratu da arazo honengaitik. Dana dala, lehenbailehen gura doguz martxan ipini proiektu biak. Ahal badira biak batera egin, ahaleginduko gara biak batera egiten ahalik eta denpora gitxien egon daiten jate-txea zarratuta".

ARRATIA

## Euskerea sustatzeko konpromisoa hartu dabe Arratiako 24 enpresek

Aprilaren 1ean, enpresek konpromisoa sinatu eben arlo sozioekonomikoan euskerea sustatzeko eta helburu hori lortzeko datozen urte bietan Errota Fundazioaren eusGara zerbitzuak eskaintzen deusiezan tresnak erabiliko ditue.



### Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapeneko Elkarteak eta Zulaibar Lanbide Heziketako Ikastegiak be sinatu dabe hitzarmena. Konpromisoa hartu daben 24 enpresa horreetan 1.300 beharginek egiten dabe lan eta tartean, 100 langiletik gorako hiru enpresa dagoz: Batz, Ilunbe eta Ormazabal. Sinatze ekitaldian, enprestatoko ordezkariak gainera, Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea eta Lorea Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru diputadua egon ziran, besteak beste. Errota Fundazioak Iratxe Goikoetxeak gidatu eban ekitaldia.

Errota Fundazioak kudeatzen dauan eusGara zerbitzua debaldekoa da eta enpresen esku ipinten ditu hainbat baliabide: itzulpen zerbitzua, hizkuntza aholkularitza, dirulaguntza kudeaketa eta trebakuntza saioak. Batz, Ilunbe, Ormazabal, Ormaurre, Comecaran, Industrias Galarza, Behingoz, Tresnak, Arbegui, Lur 2000, Autos Kastrexana, Carrocerias Usansolo, Autos Varela, Carrocerias Joseba, Zuloaga Motor, Graficas Arratia, Rotulos Usansolo, Zuhaitz Etxeak, Etxegana hotel & spa, Amorrortu ostatua, Arratiako egoitza eta Limpiezas Arratia dira eusGara batu diran enpresak. Baita Gorbeialde Landa Garapeneko alkatea eta Zulaibar Lanbide Heziketako Ikastegia be.

### Lan munduaren euskalduntzea

EusGara proiektuaren helburuak ekarri eban gogora Iratxe Goikoetxeak ekitaldian. Oin dala lau urte "ikusit genduan garrantzitsua zala lan munduaren garapena euskereagaz lotutea", bere esanetan, euskerak balio erantsia emoten deusalako lan munduari eta Arratiako arlo sozioekonomiko euskalduntzeko erakunde, enpresa eta eragileen arteko alkarlana beharrezkotzat jo eban.

Hezkuntza euskalduntuta, ikasketetatik lan mundura pasetean, euskerari segidea emon behar jakola esan eban Lorea Bilbao. "Funtsezkoa da lanerako saltoa ez izatea eten bat euskerari jagokionez. Eskolan, institutuan, lanbide heziketan edo unibertsidadean euskeraz ikasi ondoren, behar-beharrezkoa

dogu horri segidea emotea lanean be", esan eban foru diputadua.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordearen arabera, eusGara proiektua estrategikoa da hizkuntza politikearen ikuspegitik eta erakundearen arteko alkarlanaren bailoa goratu eban.

### Ildo barri bi martxan

EusGarak oin arte egindako lanketari ildo barri bi gehitu deusaz. Bata turismo sektorean eragiteko eta bestea, Lanbide Heziketako ikasketak egiten dituen ikasleek praktikak euskeraz egin dagiezan. Horrez gainera, 2020an auto tailerrak abiatu zan kanpainaren ondorioz bat egin eben tailer batzuek be jarraituten dabe eusGara zerbitzuagaz.

Turismo pilotajea Gorbeialde Landa Garapeneko alkateagaz batera ipini da martxan. Hizkuntzak turismoari balio gehigarria emoten deusala eta lekua beraren ezaugarriak transmitiduten lagunduten daua eretxita, Gorbeialdek eta Errota Fundazioak pilotajea abiatzea pentsau eben. Turismo establezimentuetan euskerea sustatzea da asmoa eta ikustea zelangorantz daukan 2022an.

Zulaibarko ikasleek praktikak euskeraz egiteko pilotajeari jagokonez, ikasleei motibazio saioak emon jakiez, jakin dagien enpresa arloan hizkuntzak zelangorantz daukan. Gainera, Arratiako Egoitzagaz ipini dira hartu-emonetan euren praktikak egiten doazen ikasleakaz lanketea zelan egin ikusteko.





## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Manolo Maseda: "Regueifa 2.0 egiteko asmo edo sentimentua daukagu"

Manolo Maseda, Burelako (Lugo) da jatorriz, baina

Santiago de Compostelan bizi da eta hur dagoan

Milladoiroko institutuan egiten dau behar. Musika irakaslea da, baita musikaria eta regueifa inprobisatzailea be.

### Erredakzinoa

Galiziako institutu biko 41 ikasleagaz etorri zan Arratiara, Regueiglobertso topaketetara. Beste 5 ikasle etorri ziran Kataluniatik eta Arratia Institutuko 47 ikasle egon ziran eurakaz. Masedak tartetxo bat egin eutsan BEGITURI, topaketa honeetaz eta inprobisatzaileen munduaz berba egiteko.

### Zer da regueifa?

Regueifa arte adierazpen bat da. Antxinakoa. Ez dakigu oso ondo zenbat mende daroan gure herrialdean. Bertsoaren antzekoa da, sentimentuez berba egiteko bat-bateko ahozko inprobisazioa, hain zuzen be. Galiziako kasuan sorrerea ezkontzetan egon daiteke, familiei egiten jakien eskaintza moduko bat zan. Gero, animazio handiko antzeko egoeretara eroan zan, eta gaur egun hezkuntza tresna bat da.

Oin dala 7 edo 8 urte, hezkuntza proiektu bat egin genduan Galizian eskola curriculum egiteko eta irakasle asko inplikau dira, batez be, ikusten dabelako erriminta honek zeharkakotasuna daukala feminismoa eta bardin-tasuna lango balioak landuteko. Ahozko inprobisazioa heldu arazo gura deutsegu gazteei. Gazteak ohituta dagoz oilar burrukak deritxanak ikusten raparen munduan, eta ez dira konturatuten, akaso, gure kultura izan zala AEBn oilar burrukak egitearen "erruduna". Oinarri tradizioetik abiatuta, pedagogiarako erabili daitekela egiten dogu amets, herri idiosinkrasia eta, aldi berean, gazteriarren ahalduntzea batzean dauzan tresna moduan.

### Regueifan, musika tresnak lagunduta egiten da inprobisazioa, ala bertsolariek moduan a capella?

Hasikeran a capella izaten zan, musika tresna barik. Baina regueifa 2.0 egiteko asmo edo sentimentua daukagu. Izan be, regueifa eskoletara eroteak aukerea emoten deusku musika tresnak eta koreografiak ezartzeko. Hau da, inprobisauz amets egiteko: tradiziozkoa errespetauz, oingo sasoiara egokitzeke, batez be testuinguru jagoienean. Regueifa

oso jardun matxistea zan bere sasoiaren, eta uste dogu hori baztertu egin behar dala; testuak, testuinguruak eta batez be narratibak aldatu behar dirala.

### Inprobisatzaileen institutuetako topaketa honek diralata, laugarren aldia da Arratiara etorri zarala. Zelan hasi ziran alkartruke honek?

Lotura horren erruduna, Pirinioetako zugatz baten adarra izan zan. Musika jaialdi baten, Lur Olabarri-gaz egin neban topo. Bere karabaneak adar baten kontra talka egiteko egoan eta nik gelditu neban. Holan hasi zan dana. Eta gaur arte. Nik buruan bueltaka neukan, Euskal Herriagaz loturea bilatu behar genduala eta hortik sortu ziran topaketa honek. Musikearen eta sentimentuen bidezko komunikazioaren mundua zoragarria da! Lurregaz berbetan, ikusi genduan herri biak hurreratzeko modu bat be bazala, eta halaxe egin genduan; oin dala urte batzuk, Regueibertso-gaz hasi ginan, hau da, regueifa eta bertsolaritza alkartzen.

### Institutuetan gauzatu zan alkartze hori?

Institutuen bidez, bai. Galizian, Baioko institutuagaz hasi ginan. Nik orduan han egiten neban behar. Baio, Costa da Morten dagoan landa eremuko herria da, eta bertan regueifa oindino bizi-rik dago. Costa da Morte aldean, jente gehiago dago informazioa emoten dauana eta regueifaren benetako zuztarrak mantenduten dauana. Geroago, Katalunia-

gaz be hasi ginan behar. Oin, Europako proiektu baten gagoz, batez be, beste herrialdeetako inprobisatzaileen testigantzak jasoten Italian, Sardinian, Madeiran, Azoretan... Oso interesgarria da eta uste dot datorren urtean ondorioak aterako doguzala.

### Bihar (aprilak 7) arrastian erakustaldia egingo dozue.

Bai, bihar megajai bat daukagu, foliada bat: jaia, topaketea, transmisioa... Bihar azalduko dogu zelan egiten dogun lan ikasgeletan, eta ze tresna erabilten doguzan ikasleek modu errealean eta zuzenean inprobisau dagien. Geure kultura erakutsi gura dogu, uste dogulako bakotxa beretik abiatu behar dala ahalduntzeko. Oin ikusten gabiz, gazteek batzuetan kontaktua galdu eta gaztelerara jotzen dabela, errazago egiten jakielako, hizkuntza hau inposatua dagoalako eta danean dagoalako. Inprobisazioez gainera, gaur egungo galegozko musikea, pop musikea, artista galegoen bersinoak eta jantza tradizionalak be egingo doguz.

### Korrikan hartuko dozue parte, euskerearen jai handian.

Bai. Korrikan parte hartzeako aukerea daukagu, gertakizun ikusgarri honetan. Gauean betikoa egingo dogu: inprobisau. Eta lo gixi egingo dogu. Funtsean, hona etorten garanean energia hartzean dogu, baina aldi berean nekatu egiten gara. Sano positiboa da hori, eta oindino gehiago garai honeetan. Nik uste dot, garrantzitsua dala ikusi arazotea pandemia normalizau behar dala. Maila emozionalean, ondoizatea landu behar dogu, bai ala bai. Uste dot heldu dala garaia esateko daukagunagaz bizi behar dogula, baina pozik bizi. Horixe da filosofia.

### Ikasturtean zehar, Arratia Institutuko ikasleakaz ba-daukazue hartu-emonik?



Bai. Aurten ez, pandemiak ikasturte bitan gelditu arazo egin gaitualako. Goizean oin dala urte bi egondako ume batzuk egon dira gugaz armozetan eta guztiz aldatuta dagoz, ia metro biko gazteak dira. Zer emoten deutsezue hemen jaten? Itzelak dira, eta unibersidadean eta holan dagoz. Lehenengo urteetan loturea oso bizia eta sendoa izan zan, lagun taldea egin zan eta lagun talde hori hazten ikusi genduan. Oin, barrero be, hazia ipinten gabiz.

### Datorren urtean, zer?

Urte bakotxean leku baten egiten dogu eta datorren urtean Santiago izango da. Salto kualitatibo eta kuantitatibo bat egin gura dogu. Hau da, oin arte 50, 100 moduko zifraz gabiz. Galizian egiten genduan atzen aldian, 1.000

neska-mutil sartu genduzan auditorium baten, eta zifra hori asko handitzea gura dogu.

### Regueifa munduko izen handiren bat?

Neska bat dago niretzat erreferentziakoa dana, bertsolaritzan Maialen Lujanbio lez. Galiziako Maialen Lujanbio, Lupe Blanco da. Ahalmen eta nortasun handiko andrea da eta gazteakana zelan ailegau badaki. Sintonia berean egiten dogu lan eta ikastaroak emoten doguz alkarregaz. Luperen aitiba, Blanco de Muiño de Seco zan, akaso, regueifaren eskola zaharreko adierazgarriena. Lupek tradizioaren onena jaso dau eta gaurko sasoiara ekarten jakin dau. Eta uste dot genealogia lotura hori oso beharrezkoa dala eta aldarrikatu egin behar dala.

## ARTEA

## Eskola jazarpenaren kontrako jardunaldiak aurkeztu ebazan Giulia Undagoitia arratiarrak

### Erredakzinoa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Bizikasi ekimenaren barruan Ongizate emozionala eta bizikidetzarekin denok BAT kongresua antolatu eban martiaren 30 eta 31n, Bilboko Euskalduna Jauregian. Helburua, ikasleek izan lekiezan zailtasun sozio-emozionalei aurre egiten lagunduteko tresnak eskuratzea zan eta hainbat ikastetxek partekatu ebazan euren esperientziak. Hizlariak, ziberbizikidetzeta eta suizidioa lango gaiak landu ebazan. Kongresuan, Giulia Undagoitia Bilbao 10 urteko igozterak antzezpene egin eban Euskalduna Jauregiko oholtzan.

Hamar urte baino izan ez arren, Giuliak badauka esperientzia ipuin kontaketan eta antzerkian; izan be, bera da, Lemoako liburutegiko "Konturin" personaiaren ahotza. "Lemoako irakasle talde batek, liburutegiaren erabilera eta irakurzaletasuna bultzatzeko sortu eban liburutegiko personaia. Izena Giuliak ipini eutsan eta bera da Konturinen ahotza. "Konfinamentuaren aurretik ipuinak kontetan joan zan eskolara, nire laguntzagaz eta konfinamentuan Konturinen mezuak eta ipuinen bat be

biatzen genduan. Giuliari asko gustetan jako antzerkigintza" azaldu deutso BEGITURI Lemoako eskolan irakasle dan Giuliaren amak. "Igaz etxean prestatzen ebazan ipuinak eta kontetan ebazan eskolan. Disfrutau egiten dau irakurketekaz, antzerkigintzeagaz..." dino Esti Garcia Arteako eskolako irakasleak.

### Proiektuagaz bat

Berritzeguneko alkarbizitzako Iñigo Ramos egon zan antolakuntzan. Ramosek ezetuten eban Konturinen ahotza eta baekian Giuliaren zaletasunaren barri eta bere ahotza ekitaldirako egokia zala eretxita, proposatu eutsan umeari irakurketea egitea jardunaldien aurkezpenean. Giuliak baiezkoa emon eutsan eta Josu Garate jantzaria eta musikariaren laguntzeagaz egin ebazan entseguak. Irakurri eban testuan, eskolan danak bat egiteko, eta alkarri babesteko eta eusteko premia defendidu eban arratiarrak. "Eskolan ikasten dut eta eskokak ere niregandik ikasten du. Lotuak gaude. Lotura gara. Elkarri lotzen zaizkion hariak gara, batzuk indartsuagoak, beste batzuk gutxiago, baina beti elkartuak, hari sendo eta indartsu hori osatuz".





ARANTZAZU

## Prostituzinoaren gaineko berbaldiak antolatu dabez

Arantzazuko Udalak eta Noka talde feministek, prostituzinoaren gaineko berbaldi bi antolatu ditue, eztabaida honen alde biei berbea emoteko.



eztabaidea sortzean dala feminismoan, baina atzenengo urteotan inoz baino latzago izan da eztabaida hori. Berbaldi honeek argia ipini gura dabe gaiaren gainean.

### Carolina Clemente eta Amelia Tiganus

Carolina Clemente Villar, Psikologian graduadua eta Putas en Lucha kolektiboko kideak, prostituzinoaren estigmak egiten dauan kalte psikologikoa ikertu dau. Ondorioak, 2020an Relies aldizkariko (Sexualidadean azkerketa Soziohistorikoa egiteko Iberoamerikako Laborategiaren aldizkaria) "El impacto psicológico del estigma de prostituta" artikuluan argiratu ebazan.

Amelia Tiganus *Feminicidio.net* webgunearen egitasmoaren koordinatzailea izan da eta prostituzinoaren konsumoa saihesteko sensibilizazio tailerrak gidatu ditu. Prostituzinoan diharduen andren bizimodua hobetuten laguntzearen aldekoa da, baita aldi berean prostituzinoa desagertzeko pausuak emotearen defendatzailea be. Euskal Herriko Mugimendu Abolizionistako kidea da.



Amelia Tiganus.

### Erredakzinoa

Lehenengoa, apirilaren 27an, 19:00etan izango da eta han, Carolina Clemente hizlariak "sexu lana" zigorpean ala eskubideak izan behar dan eta langileek klandestinidadan ala errekonozimenduagaz egin behar daben lan planteauko dau. Maiatzaren 13an, barriz, Amelia Tiganus izango da hizlaria, berak indarkeria sexuala, pornografia eta prostituzinoaren arteko loturen gainean egingo dau berba eta sexualidadea modu osasungarrian biziteko proposamen etiko batzuk azalduko ditu.

Mobimentu feministek tensio handiko momentuak bizi dauz, prostituzinoa arautzearen aldekoen eta abolidutearen aldekoen artean eta hori agirian geratu zan aurtengo martiaren 8an Espainiako hainbat uritan, abolizionistek manifestazio ofizialean parte hartu ez eta manifestazioetarako deialdi propioak egin ebezanean. Ez da lehenengo aldia prostituzinoa eta sexu lanaren artean

IGORRE

## Kiroldegia 11n zabaldu zan

### Erredakzinoa

Igorreko kiroldegia erre ostean apirilaren 11n zabaldu zan barrio; halanda be, saunea eta 3 aldagela oindino zarratuta dagoz. Horren ondorioz sortutako "overbooking-a" saihestu asmoz Igorreko Udalak ebatzi batzuk hartu ebazan apirilaren 8an argitaratutako bando baten arabera.

Goizez aldagela bat eskoleak erabiliko dau, eta beste biak kiroldegiko erabiltzaileek; arrastietan

ostera, aldagela bi erabiltzaileek erabiliko dabez eta bestea familiariek. Aste Santuetako oporrak dirala eta, oporretan aldagela bi erabiltzaileek erabiliko dabez eta bat familiariek.

Ebatzi horreek erabilerearen arabera aldatu daitezke azaldu eban Udalak "egoera ez-ohiko baten ondorio dira eta". Diru itzultzea edo klaseak berreskuratzearen gainean aprilean zehar hartuko dituala ebatziak adierazo eban Udalak.

ARRATIA

## Jabekuntza eskolako atzeratutako tailerrek badaukiez data barriak

Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako hainbat ikastaro ezin izan ziran aurrera atera bere momentuan errazoi desbardinakaitik. Ikasturteko programazino osoa bete guran, data barriak ezarri jakie ikastaro eta tailerrei, interesdunek ikastarook egin ahal dagiezan.

### Erredakzinoa

Hainbat bider atzeratuta, martiaren 15ean, egin zan Tere Maldonadoren *Egungo feminismoaren zereginak* Bedian. Formatu txikian, mahai baten inguruan, maistratasun handiz aurkeztu eban Maldonadok interes handiko gai hau eta balorazino ona izan dau berbaldiak. Hurrengoak Mijo Lizarabururen lodifobiaren gaineko berbaldi eta tailerra izango dira.

### Atzeratutako tailerren data barriak

Apirilaren 29 eta 30 dira Lodifobia berbaldi eta tailerren data barriak hurrengoiz hurrengo. Bietarako emon daiteke izena, edo berbaldirako bakarrik, edo tailerretarako bakarrik. Lizaraburuk loditasuna prerspektiba politikotik landutako proposamen teoriko eta praktikoak landuko ditu bertan. Areatzan izango da.

Sarean eta kolektiboan erre barik behar egin edo militetako, Mar Garrotek gidatuko dauan *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* tailerra, maiatzaren 20 eta 21era atzeratu da. Hau be



Areatzan da egitekoa.

### Programazinoak aurrera segiduten dau

Atzeratutako tailer horreezaz gainera, sasoi honetarako programauta egozanetan be emon daiteke izena. Apirilaren 21ean da hastekoa Idoia Eizmendik gidatuko dauan *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroa. Ikastaroa, maiatzaren 26ra arteko eguenetan izango da Zeanuriko Kultur Etxean 18:00etatik 20:00etara. Ahozko aurkezpenak egiteko trebetasuna

eta ziurtasuna lortzea eta jentearreko komunikazinoa hobetutea da ikastaroaren helburua.

Maiatzaren 18an hastekoa da basoko landareak jateko prestatzen ikasteko ikastaroa. Bagilaren 8ra arte luzatuko da eta eskolak Arantzazuko Kultur Gunean izango dira eguaztenetan Marta Marimon eta Encarna Delgadoren eskutik.

Morea eta Grisa, zahartzaro feministea landutako ildoan, *Andra zaharraren manifestua* antzezlanak be, momentuz, bere data manteniduten dau: maiatzak 21.

ZEBERIO

## Aisialdirako lekua izango dau Ermitabarri auzoak

### Erredakzinoa

Pumptrack pista, ariketa fisikoa egiteko makinak, mahaiak, komun publikoak eta aparkalekuak ipini gura ditu Zeberioko Udalak, Ermitabarriko Telleri auzoan eta Gesala auzora doan kaminoaren inguruan.

Bizikletak, patineteak, patinak eta skateak erabilteko pista, Ermitabarriko Telleri auzoan, Gesalara doan kaminoaren parean egongo da. Pistatik hur, kaminoaren beste aldean, kanpoan jateko mahai batzuk eta gimnasia egiteko makinak ipinteko asmoa dauka Udalak. Aisialdi eremu honen erabiltzaileentzat aparka-

lekua eta komun publikoak be ipintea aurreikusita dago.

Udalak kudeatuten dauzan Er-

mitabarriko haiesduietan, ibilbide bat prestatu gura dabe, atsedena hartzeako gune eta jesarlekuakaz. Interpretazino panelak be ipiniko ditue eta bertan Olabarrietako San Tomaseko soziedadearen eta Ermitabarriko sorrerearen historia kontauko da.





**22. KORRIKA**

# ***Bizitza bera bezain ederra***

Bizitza bera bezain ederra izan zan Korrika Arratian. Poza, kolorea, oroimena, errebeldia eta duintasuna ikusi zan lasterketan. Kilometro bakotxean, historia bateri lotu jakon Korrika, lekuko eroalearena eta beragaz joian jentearena, hain zuzen be. Eta poza nagusi izan arren, bizitzaren beste aldeak be agertu ziran, duintasunez beti.



**Irudian, Zerturen izenean kilometroa egin eben Joane eta Malen Bilbao eta Onintze Petralanda, Zeanuriko EH Bildukoengandik testigua jasoten.**

**Erredakzioa**

Lan eguna izan arren, jentetza batu zan Korrikara. Arratiak itzel erantzun eban, "betiko moduan", AEK-ko Klara Astondoaren berbetan.

Poza. Korrika pasau zan herri guztietan somatu zan poza. Eta herriak pasau barik be poza adierazo eben Dimako Udalak, alkarteak, eskoleak... lekukoa eroan eben Bazarreko kilometroetan. Kilometro bakotxean bertso bat bota eban Zefe Ziarrustak. Berezia izan zan.

Itzelezko jentetza egon zan Zeanuriri, baita Areatzan be. Area-

tzako lehenengo kilometroa, BEGITU argitaratuten dauan Zertu Kultur Elkartearena zan. Kolorea nagusitu zan han. Ustrukuaren koloretako guardasolpetan hartu eben lekukoa Joane eta Malen Bilbaok eta Onintze Petralandak.

AEK-ko kilometroa izan zala bereziarena dino Klara Astondoak, oindino hunkituta. Egoitz AEK-kidea oin dala urte bi hil zan, eta haren oroimenean, AEKren kilometroan bere neskalgunak, semeak eta aitagarrebak eroan eben lekukoa.

Mobimentu feministearen mendeetako errebeldia ekarri eban akordura Lemoako lehenengo kilo-

metroan kolore moreak. Irune Costumerok eta Maitane Olatz Bilbaok eroan eben lekukoa, giro ederrean.

Bedian, momentu berezienetako bat bizi izan zan. Jandoniz egoitzaren kilometroan, lekukoa, gurpil aulkian dagoan egoiliar batek hartu eban. AEK-ko lankide ohi baten aita dala dino Klara Astondoak. Lekukoa tente, indarrez eta duintasunez eroan eban.

Edade guztietako eta kolore desbardinatetako jentetza, sasoiak dagoanak eta bizitzaren arpegi latzenari duintasunez erantzuten deutsanak eroan eban euskerean lekukoa. Ederra izan zan.



**Txumuluxueta Kultur Elkartea.**



**Dimako Bertso Eskolea.**



**Zeanuriko eskolea eta guraso alkartea.**




**Areatzako Udala.**



**Ubideko herria.**



**Zeberriko eskolea eta guraso alkartea.**



**Zaztarrak Asti Taldea.**





Arteako Guraso Elkartearen.



Igorreko eskolea eta guraso alkartearen.



Ganzabal Mendi Taldearen.



Arteako Udala.




Arratiako Mugimendu Feministaren.




Jandoniz egoitza.



BATZ.



Cementoseko LAB.



Arratia Institutua.



Arginatx Mendi Elkartearen.



Kiñu Kultur Elkartearen.

## MEZUA

Herri honen eztairitik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.

Oihu honek hogeita bigarenez erakutsi digu hizkuntza bat ez dela hitzekin egiten bakarrik, hitzekin eta gorpuzekin baizik. Belau eta hanken gainean trostan eraman daitekeela hitza; dardara, amasestu eta izerdi artean pasatu ahal zaiola elkarriz eskutik eskura.

Hizkuntza zerbait fisiko bihurtzeko ahalmena du Korrikak. Gure a e i o u partikulara gorpuzteko. Eta hori behar du euskarak: haragi bihurtzen diren hitzak.

Euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, amas aparatua eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrea. Malko eta listuz bustitzea behar du euskarak. Hatz markaz zikintzea.

Zikindu dezagun, beraz, euskaraz; lohitu dezagun bizitzaz. Eta egin dezagun euskararekin hainbat inertziaz kontra:

Hitzak hustu egin diren garai batean, bete ditzagun euskararen berriak harri eta herri.

Dena erosi eta saldu omen daitekeen garaian, erakutsi dezagun zein merkea den gure hizkuntza: debalde hartzen dugu herriaren ahotik eta debalde ematen diogu herriaren belarriari.

Indibidualismoa indartuz doan garaian, egin dezagun euskaraz kolektibo bat, denon artean eta denon.

Gerren sasoiari, lehenetsi dezagun beti hitza.

Influencer eta youtuberen aroan, izan ditzagun guk bestelako jainko toki inspiratzaileak.

Euskararen pronostikoa gudan dagoela gogoratu zizun Pello Zabala, adibidez.

Edo euskaraz apaltasun eta harrotasun hitzak bateragarriak direla erakutsi zizun Joan Mari Torrealdai.

Edo euskaraz ez dela zaila, euskaraz nahia dela erakutsi zizuten Elbira Zipitria, Julene Azpeitia edo Izaskun Arue bezalako andereñoak.

Eta etiketen garaian, ahaztu ditzagun behingoz euskaldun berri eta zaharrak. Iraultza honetan, lasterketa honetan, denok garelako euskaldun berri. Hizkuntza bat egunero hasten delako, egunero berritzen delako. Hizkuntza bat ez delako jaitzen, egin egiten delako.

Sinistu dezagun euskaraz ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik.

Eta atera dezagun gure eztairitatik Mauriziazaren irrintzi baten indarrak.

**EKIN EUSKARARI, EUTSI KATEARI!**

**GORA KORRIKA ETA GORA EUSKARA!**

Karmele Jaio Eiguren



## FUTBOLA

## Lemoako Harrobik kimuentzako VII. Harrobi Txapelketea antolatu dau

Aprilaren 23an, 10:00etatik aurrera, Arlonagusian, 2010ean eta 2011n jaiotako futbolarietaz osotutako 12 talde neurtuko dira Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako VII. txapelketan.



### Erredakzioa

Lemoako Harrobi, Deportivo Alaves, Real Zaragoza, SD Eibar, CD Parquesol, Valencia CF, Arenas Club, Real Sociedad, Real Racing, Real Valladolid, Antiguoko eta Club Atletico Osasuna dira aurten txapelketan parte hartuko daberen taldeak. Aurreko edizioa 2019an jokatu zan.

Txapelketa osoa egun bakarrean jokatu da. Partiduak 20 minutukoak izango dira eta aldi berean bi jokatu dira, baina Finalak 12 minutuko zati bi izaten

ditu. Ligaxkako lehenengo zuzenean pasauko da finalera eta bigarren eta hirugarren geratzen diren artean partidua jokatu da eurretako zeinek jokatu dauan finala ebazteko.

### Harrobi

Harrobi Futbol Klubak 12 talde ditu, hurrengo kategorietakoak: Eskualde mailako bat, Gazte mailako beste bat, Kadete talde bi, Haur kategoriako bat, Kimu kategoriako bi, Benjamin kategoriako beste bi eta eskola futboleko hiru talde.

## ERRUGBIA

## Zekorrek 22-0 irabazi eben Eibarren kontrako partidua

### Erredakzioa

Aprilaren 9ko arrastian, zapatuz, lehiatu ziran Igorreko San Txisme errugbi zelaian Arratiko Zekorrek eta Eibar taldeak. Aurreko partidua bertan-behera geldituta eta Zarautzen kontra 73-7 galdu

ostean, arpegirik onena erakutsi eban talde arratiarrak 22-0 irabazita. Tantuak Egoitz Garmendia, Koldo Cuevas, Jon Gurtubai eta Aimar Ruizek egin ebezan. Hamahiru partidua jokatu zaizpigarren postuan dago sailkapenean, 22 puntugaz.



Eibarren kontrako partidua osteko hirugarren denborak.

## PELOTEA

## Bizkaia Torneoko finala jokatu dau Amaia Aldai pelotari dimoztarrek

Amaia Aldai eta Nora Mendizabalek, Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirrerren kontra jokatu dabe Andrazkoen IV. Eskupelota Bizkaia Txapelketako finala aprilaren 23an, Bilboko Bizkaia frontoian.



Amaia Aldai eta Nora Mendizabal.

### Erredakzioa

Finalerako pasea, aprilaren 8an lortu eben, Miren Larrarte eta

Uxue Osesen kontrako partidua 22-8 irabazi ostean. Finala ET-B1en ikusteko aukerea egongo da aprilaren 23an. Hirugarren

eta laugarren postuak ebazteko partidua jokatu da aurretik 15:15ean hasita eta ostean finala jokatu dabe.

Aldai eta Mendizabalek partidu ona egin eben finalurrekoan; izan be, Aldai jokoaaren protagonista izan zan eta Mendizabalek be aurreko partiduetan baino seguruago jokatu eban.

### Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta

Martiaren 18an hasi zan eta hiru partidua jokatu ditu bikote bakoitxak Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dauan Emakumeen IV. Eskupilota Txapelketan. Bertan, zortzi pelotarik hartzean dabe parte; hau da, lau bikotek: Aldaik eta Mendizabalek, Arrizabalagak eta Agirrek, Garaik eta Gamindek eta Larrartek eta Osesek osotutako bikoteek, hain zuzen be.

## FUTBOLA

## Gizonezkoen Arratia B taldea lidertzan

### Erredakzioa

Arratia B taldeak atzen partidua bardindu arren lider segiduten dau eta Arratia A eta Lemoako Harrobi igoera postuetatik hur dagoz. Andrazkoen talde biek ezin izan ebezan euren partidua irabazi.

Gizonezkoen Arratia A taldeak husna bardindu eban hilaren 8an Abadiño A liderraren kontra Urbietan jokatu dau partidua. Datorren partidua hilaren 23-24ko aste-agoiengan jokatu dau Galea A taldearen kontra etxetik kanpo. 32 jardunaldiren ostean Arratia hirugarren postuan dago 62 puntugaz igoera postuetatik 3 puntura.

Arratia B taldeak osteraren hilaren 9an jokatu eban etxetik kanpo Otxarkoaga B taldearen kontra eta bana bardindu eban. Datorren partidua 23-24ko aste-agoiengan jokatu dau Abadiño B taldearen kontra Urbietan. 27 jardunaldiren ostean Arratia Bk lider jarraitzen dau 56 puntugaz.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 8an jokatu eban San Ignacio A taldearen kontra etxean eta 2-3 galdu eban Igorreko tal-

deak. Datorren partidua, ligako atzena, hilaren 23-24ko aste-agoiengan jokatu dau Monte talde kantabriarraren kontra etxetik kanpo. 25 jardunaldiren ostean hamaikagarren postuan dago Arratia 23 puntugaz.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 9ko arrastian jokatu eban etxetik kanpo Peña Athl. Santurtzi taldearen kontra eta 7-2 galdu eban. Datorren partidua hilaren 23-24ko aste-agoiengan Adiskideak taldearen kontra jokatu dau Urbietan. 26 jardunaldiren ostean hamalagarren postuan

dago Arratia B 27 puntugaz.

### Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak, liga osoan partidurik galdu barik egon eta atzen porrot bien ostean, garaiaren argia lortu eban Ezkurdi A taldearen kontra etxetik kanpo hilaren 8an 0-5 irabazita. Datorren partidua hilaren 23-24ko aste-agoiengan jokatu dabe Mungia A taldearen kontra etxean. 28 jardunaldiren ostean hirugarren postuan dago Lemoako Harrobi 54 puntugaz, igoera promozioa jokatzeko burrukan.





## MENDIA

### Errekorra ezarri dau Onditz Iturbek Arrasate-Udalatx lasterketan

Onditz Iturbe atleta igorretarrak irabazi eban apirilaren 10ean, Arrasate-Udalatx mendi lasterketearen seigarren edizinoa. 21 kilometroak 02:07:32ko denporan egin ebazan eta mendi lasterketea irabazteaz gainera, Oihana Azkorbebeitiak eukan errekorra (02:11:06) apurtu eban Iturbek.



#### Erredakzioa

Oihana Azkorbebeitiak egin eban bigarren eta Malen Osak osotu eban podiuma. Gizonezkoetan, Asier Laruzea Enkarterrietakoak irabazi eban lasterketea eta honen be errekorra ezarri eban, gizonezkoetako errekorra 15 segundo hobetuz. Unai Intxaurraga zeanuriztarrak be jantzi eban txapela beteranoen mailan.

Hasikeratik sensazio onakaz, erraz irabazi eban igorretarrak lasterketea. "Topera disfrutau neban. Itzela lasterketea eta giroa! Eguraldia lagun, ibilbide guztian zehar jentearen animoek hegan eroaten zaitue, Gainera, gorputzak be ondo erantzun eban eta

erritmo polita eroateko gai izan nintzan" azaldu deutso BEGITURI Iturbek.

#### Kilimon

Ez da hamabostaldi honetan jantzi dauan txapel bakarra, aurreko asteko zapatuan, aprilak 2, Mendaroko X. Kilimon Trail mendi lasterketea irabazi eban eta. Kilimon Trail-eko, 23 kilometroak 02:23:43ko denporan egin ebazan. Orduan, irabazi arren ez zan gustura ibili txapelduna. "Ez neban disfrutau. Urtekeratik sensazio eskasak izan nebazan, destenplau antzean nengoan. Kilometroak aurrera egin ahala erritmoa hartuz joan nintzan baina ez nintzan eroso ibili".

## MENDIA

### Alpinismoa, alkartasuna eta energia barriztagarriak batzean dira Alex Txikon protagonista dan *Anwar* dokumentalean

Alex Txikon alpinista lemoztarra da dokumentalaren protagonista. Rosa Garciak zuzendutako *Anwar* dokumentalak Txikonek 2021eko neguan egindako espedizioaren barri emoten dau.

#### Erredakzioa

Tontorrera heltzea lortu ez eban arren, "kutsadura bako" eta eguzki panelek bultzatutako lehen espedizioa izan zan. Bilboko Euskalduna Jauregian estrenau zan dokumentala apirilaren 2an.

*Anwar* berbeak, argiz betea esan gura dau eta dokumentalak "alpinismo, alkartasun eta energia barriztagarrien" istorio bat kontetan dau. EKI fundazioaren laguntzeagaz, Manaslun eguzki panelakaz ibili ostean, teknologia hau Freetowneko fabeletara eta Nanga Parbat azpiko Günter Mountain School-era eroan dau Txikonek. Laguntza energetikoagaz jarraitzeko, dokumentala ikusteko sarreraren



salmentan lortutakoagaz, EKI fundazioak instalazino fotoboltaikoak

egingo ditu Afrikako hainbat eskola eta osasun zentrotan.

## RAIDA

### Arratia Raid Ertainaren bigarren edizinoa antolatu dabe maiatzerako

#### Erredakzioa

2019an izan zan lehenengo edizinoa eta urte biko etenaldiaren ostean, Igorreko Udalak Arratia Raid taldearen laguntzeagaz, maiatzearen 22rako proba antolatu dau barriro. Hiru ordu eta erdi inguruko proba izango da, mendia edo kirola gustuko dauan edonorentzat. Taldean, hau da, bikoteka, familian, umeakaz, lagunakaz eta abar egiteko. Goizeko 10:00etan da hitzordua, Kultur Etxe inguruko parkean.

Partaideek, mapa eta orientazioaren bidez, baliza batzuk topau beharko ditue mendian edo herrian, oinez edo bizikletan eta "ondo pasetako proba bereziak egongo dira: soka saltoan, eskiak, slackline, punteria eta abar". Bizikletea, zapatilak eta, euki ezker, iparrorratza da probarako behar dan materiala.

Ibilbide bi egongo dira, bata luzea, baliza guztiak hartu gura dabezanentzat eta bestea laburra, hasibarrientzat edo umeakaz

doazanentzat, esaterako. Gainera, raid baten bakotzak bere ibilbidea egiten dau eta ez da derrigorrezkoa ibilbide osoa egitea.

#### Luzea antolatuteko prest

Derrigorrezko urte biko etenaldiaren ostean, gogoz ekin deusiela antolaketeari dino Xabier Iturriaga antolakuntzakoak, eta jentek gura badau, Arratia Raid formatu handia antolatzea animauko dirala barriro dino; hau da 7 orduko proba antolatutera.



## KONTAKETEA

Gazte eta helduentzako  
ipuin kontaketea  
Lemoako Kultur Etxean

## Erredakzioa

Apirilaren 27an, 18:30ean, Dorleta Kortazarrek *80 amandre* ipuin kontaketea eskainiko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, 16 urtetik gorakoentzat.

Oteizaren berbetan, 80 amandre baino ez ei dira behar antxinako andrak egungoakaz lotzeako. "Nik 4 amandre nahikoa izan dodaz munduan nire txokoa topetako, 4 amandre besterik ez, ipuin bihurtu eta saio honetan alkartu dodazanak. Ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi eben andren istorioak dira honeek. Esku zailduak, sabel puztuak, begirada galduak, eta batez be irribarre begietan daukien amandreak, amamak, amonak, amaxiak, amumak..." dino kontalariak bere webgunean.

## Dorleta Kortazar

Dorleta Kortazarrek (Eskoriatza, 1974) ume, nerabe eta helduentzako ipuin kontaketeak egiten ditu. Ipuin kontalarientzako formazioa be emoten dau Kortazarrek ipuinak kontetan erakutsi eta andren jabe-kuntza prozesuetan sakontzeko.



## LIBURUA

Alaine Agirre idazlea  
Diman izango da

**Aprilaren 28an, 18:00etan, Alaine Agirrek  
Karena bere liburuaren aurkezpena  
gingo dau eskolako kameran Andraizea  
andra taldeak antolatuta.**

## Erredakzioa

Alaine Agirrek euskerazko eleberrian 2021eko 44. Kutxa Irun Hiria Literatur Sarien irabazlea izan zan.

Nobelan, amatasunagaz lotutako hainbat gai dakar idazleak, normalean isilpean eta ezkutuan geratzen diranak: lagundutako ugalketa teknikak, horren ondorio fisiko eta psikologikoak, bikoteko batek guraso izateko besteak baino gogo gehiago daukanean sortzean diran arrakalak, amarenganako errespeturik bako erditzeak, gura bako abortuak eta horren doluak... Egileak Sara Mendizabal protagonistearen ibilbidea kontetan dau "lirismoz eta musikalidadez, minetik edertasuna sortuz, gorputzaren barrutik uniberso oso bat eregiz".

*mamituak* (2014), *X hil da* (2015) 2016ko Zidarrezko Euskadi Saria jaso ebana, eta *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017); poema bilduma bat: *Txoriak etortzen ez diren lekua* (2017); eta haurrentzako hainbat liburu, *Martin* (album ilustratuen Lazarillo saria) eta *Hau ez da zoo bat* (Xabier Lizardi saria), esate baterako.



## Alaine Agirre

Alaine Agirre Garmendiak (Bermeo, 1990), helduentzako hainbat eleberridatzi ditu: *Odol*

## KONTZERTUA

Familientzako kontzertua Kotxepin  
Kultur Etxean hilaren 29an

## Erredakzioa

Aprilaren 29an, 18:30ean, Jon Urrutia "Trakamatraka" k ortu-

riakaz egindako musika tresnakaz kontzertua joko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. *Matraka Culinary Center* izeneko

## POESIA

Poesia errezitaldia antolatu  
dau Igorreko Liburutegiak  
liburuaren eguna ospatuteko

## Erredakzioa

Igorreko Liburutegiak, apirilaren 22an, 19:30ean, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dau poesia errezitaldi batez. Poematako asko, musikeagaz lagunduta egongo dira. Goi mailako alkartee-tako olerkariak, rapsodek eta musikariak hartuko dabe parte bertan. Mikrofonoak zabalik egongo dira parte hartu gura dabenentzat.

Liburutegiak, Igorren jaiotako poeta eta rapsoda Poesia hegalaria taldearen laguntzeagaz antolatu dau emonaldia. Alkarranean "kulturearen plataformea eta bultzadea" izan gura dabe eta jentea parte hartzean ani-

mau gura dabe, "sormena lagunen artean", adierazotera, hain zuzen be.

## Liburuaren Nazioarteko Eguna

Aprilaren 23an, mundu mailan ospatuten da Liburuaren Nazioarteko Eguna 1995etik, Unescok bultzatuta. Helburua, irakurketea, liburugintza eta, egile eskubideen bitartez, jaubetza intelektuala bultzatzea da.



## BAKARRIZKETEAK

Beatriz Egizabal  
umoristearen  
bakarrizketa  
barria Artean

## Erredakzioa

Aprilaren 22an, 19:00etan, Beatriz Egizabalen *Magma mia* bakarrizketea entzuteko aukerea egongo da Arteako Kultur Etxean.

Igazko Feministaldia kultura feministearen jaialdian egiteko, eskatu eutsien Egizabaleri bakarrizketa bat. Hortik sortu zan *Magma mia* eta oin, Ana Labakagaz bost urteko ibilbidea amaituta, bakarrizketa hau aurkezten dabil.

Ikuspegi feministatik, umorez, bakarrizketa honetan, bere egunerokotasunaren azterketea egiten dau. "Adin jakin bat daukat, eta hor dagoz menopausia, zoru pelbikoa... Alua gora, alua behera ibiltzen gara. Aluan daukagun indar horregaz, magma horregaz, sumendia bizten badogu... goazen sistema erretera" esan eban Egizabalek Berriari emondako alkarrizketa baten.

ikusizuna izango da berau eta jatekoaren gaineko beste ikuspegi bat eskainiko dau.

Trakamatrakak familia osoarentzako musika ikusizunak proposatzen ditu, eguneroko edo berrerabilitako edo birziklautako elementuak erabiliz; kasu honetan, kaneloiak, kalabazinak, azenarioak eta beste ortuari batzuk joko ditu musikea egiteko.

Umorez betetako musika eta antzerki proposamen honek bizi garan munduaren gaineko gogoetea egin arazoko deutse bertaratutakoei.

4 urtetik gorakoentzako da ikusizuna eta umeez hiru euro ordainduko dabez eta nagusiek sei euro.

## LEHIAKETEAK

Jaietako kartel  
lehiaketea  
abiatu dau  
Lemoako Jai  
Batzordeak

## Erredakzioa

Bagilearen 3ra arte aurkeztu ahal izango dabez udaletxean Jaietako Kartel Lehiaketarako proposamenak parte hartu gura daben lemoaztarrek. "Lemoako Jaiak 2022" esaldia agertu behar da eta 175 euroko sari bi emongo dira. Eskuz edo ordenagailuz egindako kartelak izan daitezke, bertikalak eta A4 neurrikoak. Kartelak egilearen sinadura barik aurkeztu behar dira.

Urte bitan jairik ez da egon, ezta jaietako kartel lehiaketarik be. Herriko jaiak atzenengoz 2019an ospatu ziran eta orduko Jaietako Kartel Lehiaketako irabazlea Maite Garcia Garcia izan zan.





## JAIALDIAK

# Lemoakustik eta Musik and Beer jaialdiek aurkeztu dabez parte hartuko daben taldeak

### Erredakzioa

Maiatzean izango dira jaialdiok. Lemoakustik Fest hilaren 14an izango da eta Areatza Musik and Beer, 27 eta 28an. Lemoako jaialdian, Arratiako Musika Eskolea, Ane Han lemoaztarra, Esanezin, Pasadena, Habi, eta Ibil Bedi taldeak dira egotekoak. Areatzan barriz, maiatzaren 27an, Blues Morning Singers, EraBatera, A Contra Blues kataluniarrak eta Laura Cox Band frantziarra izango dira. Hurrengo egunean, Northagirres, The Electric Alley Cadizeko taldea, The L.A. Maybe Estatu Batuetakoa eta The Treatment



britainiarrak dira etortekoak.

2017an sortu ziran jaialdi biak. Lemoakustik Fest, musika akustikoaren jaialdia, jaietatik kanpo, musika zuzenean eskaintzeko jaialdiren bat beharrezkotzat jota ipini eban martxan Udalak. 2020an etenaldia eginda, 2021ean barriro egin zan jaialdia; maiatzean izan beharrean, urrietara pasau bazan be. Aurten, ohiko fetxetara bueltauko da, udabarrira. Kontzertuok Kotxepin Kultur Etxean izango dira.

Areatzako jaialdiak hasikera baten Blues and Beer Nazinoarteko Jaialdia izena hartu eban, garagardoa eta blues musikea batzeako sortu zalako. Baina musika estilo gehiagotara zabaldu zan heinean, izena be aldatuz joan zan, eta Musik and Beer izena izan dau atzen urteotan. 2020an ez zan egin eta 2021eko maiatzean bueltau zan egun bako jaiagaz.



## GAZTELEKUA

# Igorreko Gaztelekuaren aurredeinua aurkeztu deutse Udalak gazteei

### Erredakzioa

Aurretik gazteak egindako bilera bitan jasotakoa kontuan hartuta egindako Gaztelekuaren aurredeinua, aurkeztu eutsen Illart Gumuzio Igorreko alkateak, apirilaren 9an liburutegira hurre-ratu ziran gazteei.

Gaztelekua, Institutura doan zubiaren erreka ondoko zabalgunean egongo da eta lokal bi izango ditu: barruan, 800 m<sup>2</sup> izango dira guztira, eta kanpoan 2.500m<sup>2</sup>ko espazioa izango dau. Gazteak egindako bileretan ebatzi zan zelan bananduko ziran espazioak eta zertarako erabiliko zan bakotxa. 2019an egin zan diseinua eta 2020an erosi zan lokala.

Gaztelekua 12 eta 16 urte bitarteko gazteek erabiliko dabe eta edade tarte horretakoak dira diseinuan parte hartu dabenak. Diseinutik abiatuta, proiektua egin behar da eta behin proiektua eginda, obrak.

### Lanak

Lanak hiru fasetan egingo dira. Lehenengotik, Gaztelekuaren gunea izango dana, Goloski dende-ri begira dagoan lokalaren erdia; bigarren fase baten, beste erdia eta atzenik kanpoko aldea. Datorren urtean hastea gurako leukiela esan eutsen alkateak gazteei



Illart Gumuzio Igorreko alkatea gazteei azalpenak emoten.

eta lanak ahalik eta arinen amaitzea. Hurrenratu ziran gazteak eta diseinuan parte hartu dabenak 14 eta 15 urteren bueltan egozan eta lanak asko atzeratzen badira, gertatu ahal jakie erabili ahal denerako, eurek erabilteko edadea gaituta eukitea.

### Instalazioak

Hamar espaziotan bananduta, Gaztelekuak, jolas elektronikotarako txokoa, lo egiteko lekua, suetea, komunak eta dutxak, mu-

sika gela, kirol eremua, rokodromoa, biltegia, gazteguneko gunea eta erabilera anitzeko gela, besteak beste, izango dituala aurreikusten dau diseinuak. Erreka ondoan pasealekua be eskatu eben gazteek eta jasota dago, baita errekeari begira egoteko leku lasai bat be, baina horreek egiteko Ura Partzuergoak emon behar dau baimena eta ez dago argi egin ahal izango dan ala ez. Dana dala, hori, kanpoko guztia lez, atzenengo fasean egingo litzateke.

## DUNBA

# Erasmus+ topaketak

### Zeberioko Zubialde eskolako 6. mailako ikasleak

Zeberioko Zubialde eskolea Erasmus+ programan sartuta dago. Hori dala-ta, ingeleseko saioretan Energy Tech proiektua landuten gabiz. Proiektu honetan energiaren inguruko gauzak ikasten doguz ingelesez. Gai hau Europako beste herrialde batzuetako eskolak landuten dogu; gugaz lanean dagozan eskolak hurrengoak dira: Letonia herrialdeko Saldus herriko Pamatskola eskolea, Zipre herrialdeko Peristerona herriko Demotiko Sxoleio eskolea eta Txekiar Errepublikako Ceska Lipa herriko Klic S.R.O. eskolea.

Martiaren 8, 9 eta 10ean eskolen arteko topaketa batzuk antolatu genduzan. Topaketa horreek, birtualak izan ziran COVID-

19aren egoerea dala-ta bideo deien bidez komunikau ginan. Normalean topaketa honeek aurrez aurre egiten dira. Lehenengo egunean Kahoot! Jolasean jolastu ginan gure artean hobeto ezetuteko: herrialde bakotzeko ohiturak, janaria, herrien kultura... Bigarren egunean barriz, beste hainbat jolas egin genduzan. Eskola bakotzak jolas bi proposatu ebazan eta horreetan jolastu ginan. Atzen egunean, proiektuko gaiaren inguruan, eskola bakotzeko ikasleok aurkezpen bana egin genduzan gure lana azaltzeko. Gure kasuan, energia zelan sortzean dan azaldu genduzan, adibidez: olatuen indarragaz, eguzki panelakaz edo haizearen indarragaz.

Esperientzia oso ona izan zan, nahiz eta aurrez aurre ezin ikusi



alkar. Baina egoera hau hobera doanez, Txekiar bidaiatzeko aukerea izango dogu. Bidaia maiatzaren 1etik 7ra izango da. Ceska Lipa herria ezetuteko aukerea izango dogu eta bertako familien etxeetan egongo gara astebetetz. Hori gitxi balitz, bagilearen 5etik 11ra beste hiru eskola honeek Zeberiora etorriko dira guri bisita egiten. Espero dogu dana ondo urtetea eta esperientzia zoragarria izatea!





## AGENDEA

**APRILAK 18**  
**AREATZA**

Udabarri osoan zehar medi ibilbide autogidatua Urigoiti (Orozko)-Aldabide-Sintxita. Zailtasun txikia. Parkeko ur-jauziak ezetuteko aukerea. Informazio gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta [gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus).

III. Bardintasunerako Plana egiteko prozesuan parte hartzeako izen emotea [info@errotik.org](mailto:info@errotik.org) helbidean edo udaletxean.

Hilaren 24ra arte, Parketxean eta Areatzako udaletxean dagoan QRa eskaneatu eta erdi aroko eraikinen informazioa lortu daiteke.

**IGORRE**

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

**LEMOA**

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

**ZEANURI**

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkia aurkezteko epea [harrera@zeanuri.eus](mailto:harrera@zeanuri.eus) helbidean. Gaia: Zeanuri.

**ZEBERIO**

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan ipini.

**APRILAK 19**  
**ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

**AREATZA**

Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta, playbacka eta bingoa ludotekan.

**ARRATIA**

Hilaren 29 eta 30ean Areatzan egingo dan Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako *Lodifobia* berbaldi eta tailerrarako, maiatzaren 18an Arantzazun hasiko dan *Cocinar plantas silvestres* ikastarorako eta maiatzaren 20 eta 21ean egingo dan *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* tailerrarako izena emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean edo udaletxeetan.

**BEDIA**

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

**DIMA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

**IGORRE**

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

Apirilaren 22ra arte, Igorreko Jaiak 2022 Kartel Lehiaketan parte hartzeako epea. Lanak udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira.

**LEMOA**

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 22ra arte, ludotekako udabarriko oporraldia (HH3-LH2).

Bagilaren 3ra arte, Jaietako

Kartel Lehiaketan parte hartzeako kartelak aurkeztu leikiez lemoaztarrek udaletxean.

**ZEANURI**

Maiatzaren 2ra arte, maiatzaren 14an ospatuko dan San Isidro Azokan parte hartzeako abeltzain eta artisautzako izen emotea zabalik udaletxean.

**ZEBERIO**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Maiatzaren 9ra arte, haurreskolan 2022-2023 ikasturterako izena emoteko epea.

**APRILAK 20**  
**AREATZA**

Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta, *City Jump* urtekerea.

**APRILAK 21**  
**AREATZA**

Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta, eskulanak ludotekan.

**ZEANURI**

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroaren lehenengo saioa Idoia Eizmendiren eskutik. Maiatzaren 26ra arteko eguenetan Kultur Etxean.

**APRILAK 22**  
**ARTEA**

19:00etan, Beatriz Egizabalen bakarrizketa *Magma mia* Kultur Etxean.

**IGORRE**

17:00etatik aurrera zabalduko dabe

tabernea Kiñu aurrekaldean. Terraza zerbitzua girotuteko, Pantx Records kolektiboak musika jamaikarraren pintxada egingo dau arrastian. 20:00etatik aurrera Pantx Recordsekoek platerak zabalduko dabez, norberaren gustuko biniloak ipinteko. Kiñu Gaztetxearen VIII. urteurrena.

19:30ean, Nazinoarteko Liburu Eguna ospatuteko poesia errezitaldia eta mikro irekia liburutegian.

**APRILAK 23**  
**AREATZA**

11:30etik 12:30era, 6 urtetik aurrerako umeentzat Amaren egunerako zeramika tailerra. 12 euro. Askatasun 29, behean.

**IGORRE**

12:00etan, ginkanea; 15:00etan, bazkaria. Txartelak Herrikoan salgai hilaren 21era arte. Aukera beganoa dago. 18:00etan, Rafle txarangea eta 21:00etatik aurrera kontzertuak. Kiñu Gaztetxearen VIII. urteurrena.

**LEMOA**

10:00etan hasita Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako Kimuentzako VII. Txapelketea Arlonagusian.

**APRILAK 24**  
**IGORRE**

17:00etan, zinea, *Tipos malos*; 19:30ean, *El acontecimiento* Lasarte Aretoan.

17:10etik 17:45era, Bihotz Gorosperen hilaren 30eko kontzerturako Igorrekoentzako sarreraren aurretiko salmenta Kultur Etxean (gehenez bost

sarrera personako). Sarrerak: 5 eurotan eta Lasarte Aretoko lagun txartelagaz 3,75. Aforoa: 80 lagun.

**APRILAK 25**  
**BEDIA**

17:00etatik 19:00etara, liburuaren egunaren inguruan, *Orri banatzaileak* tailerra liburutegian.

**LEMOA**

17:00etatik 20:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Locas por las herramientas* ikastaroa Paz Carbajosaren eskutik liburutegi zaharrean. Astelehenetan maiatzera arte.

**ZEBERIO**

Maiatzaren 4ra arte, maiatzaren 9an hasiko dan andrei zuzendutako *Autozaintza emozionala* ikastarorako izen emotea 94 648 10 79 telefonoan.

**APRILAK 26**  
**BEDIA**

17:00etatik 19:00etara, liburuaren egunaren inguruan, *Orri banatzaileak* tailerra liburutegian.

**APRILAK 27**  
**ARANTZAZU**

19:00etan, Arantzazuko Udalak eta Noka talde feministeak antolatuta, Carolina Clementeren berbaldia *Trabajo sexual ¿bajo el punitivismo o el reconocimiento?* *¿Clandestinas o con derechos?* Kultur Gunean.

**AREATZA**

17:30etik 19:30era, III. Bardintasunerako Plana egiteko prozesuko lehenengo saioa.

**LEMOA**

18:30ean, 80 *amandre* Dorleta Kortazarren gazte eta helduentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEANURI**

09:30ean, Gorbeia Jubiladuen eta Pentsionisten alkarreak antolatuta,

Errigoiti-Bizkaigane-Morga txangoa. Bisita gidatua Bizkaigane alkartearen eskutik. Bazkaria Morgako Katxi jatetxean. Izen emotea apirilaren 20a baino lehen jubiladuen tabernan. 25 euro.

**APRILAK 28**  
**DIMA**

18:00etan, Alaine Agirreren *Karena* liburuaren aurkezpena eskolako kamanan.

**ZEANURI**

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroaren saioa Idoia Eizmendiren eskutik. Maiatzaren 26ra arteko eguenetan Kultur Etxean.

**APRILAK 29**  
**ARANTZAZU**

20:00etan, La Basuren kontzertua Herriko Tabernan.

**AREATZA**

17:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, Mijo Lizarabururen berbaldia *Lodifobia* udaletxean.

**ARTEA**

Jubiladuen alkarreko txangoa.

19:00etan, Irakurleen txokoa. Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori*. Kultur Etxean.

**LEMOA**

18:30ean, *Matraka Culinary Center* Trakamatrakaren kontzertu familiarra birziklautako materialakaz Kotxepin Kultur Etxean.

Gaztelekuan mahai jolasak.

**APRILAK 30**  
**AREATZA**

10:00etatik 14:00etara, *Lodifobia* tailerra Mijo Lizarabururen eskutik udaletxean.

**ARTEA**

18:00etan, Ipuin kontalaria; 19:00etan, Ipuin Lehiaketako sari banaketea Kultur Etxean.

**LEMOA**

Gaztelekuan sukaldaritza.

## Igorre bizigarriagoa egiteko behaketa ibiltaria antolatu dau Bizi Igorren 2030ek

Adinarteko behaketa ibiltaria Igorretik, eskolako hesiaren margoketea eta azoka solidarioa antolatu dabe jubladu eta gazteek alkarlanean.

Apirilaren 29an, 17:30ean, herriko gune desbardinak aztertu eta ideak jasoko ditue, Igorre bizigarri eta jasangarriagoa egiteko edade desbardinetako jentek osotutako taldeetan. Hurrengo egunean, 10:00etatik aurrera eskolako hesia margotuko dabe. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle eta irakasleak, EKI proiektuaren barruan, bestelako egoerak eta errealidadeak dabiz ezetuten; hori dala-ta, Gure Señeak Derioko alkarteari lagunduteko azoka solidario bat prestatu dabe eguerditik aurrera.

**Bizi Igorren**

2016an jubladu talde bat hasi zan beharrean, Igorre bizigarriago bat egiteko. 2021ean eskolako Guraso Elkarrea batu eta adinarteko ikuspegi hartu eban dinamikeak. Harrezkerotik, lau gai nagusiren inguruko hausnarketea egin dabe: elikadura eta konsumo arduratsu eta jasangarria, ohitura era jakintzaren transmisioa, digitalizazioaren indargune eta zailtasunak eta Institutuko gazteakaz herriko kutsadurearen inguruko zientzia proiektua alkarlanean egin dabe.



## Bihotz Gorospek kontzertua eskainiko dau Lasarte Aretoan


Apirilaren 30ean, 20:00etan, Bihotz Gorospek *Bihotz anpuluak* kontzertua eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Batez be berak sortutako kantuak entzun ahal izango dira bertan; akaso, baita Igorreko kantautorearentzat esanguratsuak izan diranen bersinoren bat edo beste. Mikel Inuntziaga, "Inun"en kolaborazioa eukiko dau taula gainean.

2021ean hasi zan Gorospe *Bihotz anpuluak* bildumako kantuak zuzenean emoten eta ezagunak dira kantuok publikoarentzat. Izan be, hainbat zuzeneko emonaldi egin ditu eta bere Youtube kanalean be entzun daitezke. Igazko urrietan egin eban Gorospek *Bihotz anpuluak* en emonaldia Diman eta aurtengo zezeilean Igorren. Kontzertu intimoa da, formato txikikoa. Zezeilean Lasarte Aretoan egin zan arren, formato txikian egin zan eta jente asko kanpoan geratu zan. Gogoagaz geratu zan jenteari erantzun bat emoteko asmoz, barrero emongo dau kontzertua apirilaren 30ean, formato txikiko izango dana, kontzertuaren berezitasunakaitik.



# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### SALTZEAN DODAZ

Saltzean dodaz altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

#### BATERIA SALGAI

Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

### LANA

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

#### SUKALDARI BILA

Zazparrak-ekoak udaleku itxietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren

1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezker idatzi [zazparrakudalekuitxiak@gmail.com](mailto:zazparrakudalekuitxiak@gmail.com)-era.

#### INGELES IRAKASLE BILA

Ingelesa dakian persona baten bila nabil, batxilergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emoteko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Bihotz Gorospereen kontzerturako.

Karmele Angoitia (Zeanuri)  
Abel Ariznabarreta (Dima)



**2** Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera MatraKa Culinary Center ikuskizunerako.

Amaia Arana (Lemoa)  
Laiene Murgoitio (Igorre)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

umean medu  
**sem**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
SABINO ARANA 36  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

**begitu**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. beheka - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anaitia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

NAIARA Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**begitu**  
**eus**





**begitu**



**20 urte**

**BAIETZ  
50 LAGUN  
BARRI EGIN!**

**2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

LEHOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET

**ALKIZABAL**

LEHOA - BASAURI  
www.alkizabal.net

BASAURI  
946 51 05 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



**INSTANT UPRIGHT**  
QUALITY & STRENGTH YOU CAN TRUST

**filippini**  
GENERATING SETS

**Nilfisk**

**JCB**

**MANITOU**  
HANDLING YOUR WORLD

**CTX CONTAINEX**

**TeknoDistribukio**

**HIKOKI**

**POWER PRODUCT GENEREY**

**MASTER**  
QUALITY SOLUTIONS

**INSTANT UPRIGHT**



**HITZ EGIN**

korrika.eus



**æk**

22.korrika

**ESKERRIK ASKO**

**ARRATIA!**

Arratiako æk